

## Itsas txakurrei behin-betiko agur?

**B**akailao-populazioari eraso egiten omen diote eta hortaz, 300.000 itsas txakur akabatzeko baimena eman dute Norvegiako eta Kanadako gobernuek. Kanadak 10.000 lizentzia inguru banatu ditu arrantzaleen artean eta garbitutako itsas txakur bakoitzeko 3.000 pezeta inguru emango zaie arrantzaileei. "Egitasmo" honen helburua 2.000. urterako 1.250.000 itsas txakur desagertaraztea da,

Itsas txakurrek bakailao-populazioari eraso egiten diotela esanez, Kanadako eta Norvegiako gobernuek 300.000 ale garbitzeko baimena eman dute. Horretarako oinarri zientifikorik ez dagoela behin eta berriro esan izan bada ere, aurtengo sarraskia gerarazteko modurik ez da izan. Eta datorren urtekoa?



horrek arrantza-sektoreari mesede itzela egingo diolakoan. Horiexek irakurle, ofizialki emandako datuak. Eta hortik, irakurle, talde ekologisten eta herritarren haserre.

Izan ere, itsas txakurrek jaten dutenaren eta bakailao-populazioak azken urteotan izan duen beharakadaren artean lotura zuzena egiterik ez dagoela esan daiteke eta horrelaxe esan izan du Animalien Babeserako Nazioarteko Erakundeak. Greenpeacek dienez, itsas txakurrak garbitzeak bakailao-populazioari eusteko modua eskainiko duenik ezin daiteke esan eta beraz, eragin horri buruzko frogarik ez dagoenez, gobernuek emandako baimena bertan behera uzteko eskatu dute.

Kanadako herritarren % 70 inguru, gobernua emandako baimenaren kontra agertu da. Norvegiako gobernuak neurri horren balio ekologikoa azpimarratu du, itsas txakurren populazioa neurririk gabe hazten ari zela eta "oreka ekologikoa" bultzateko bidea eskainiko duela esanez. Merkatuaren erantzuna nolakoa izango den ikusteke dago oraindik. Greenpeacek salatu duenez, bi gobernuek itsas txakurren okela komertzializatzeko kanpaina berria aurki jarriko dute martxan. Itsas txakurraren zakila esate baterako, afrodisiako gisa erabiltzen da Asiako zenbait lekutan, eta aleko 25.000 pezeta inguru egin ohi du.




Costa Ricakoa da jatorriz eta basilisko du izena. Uraren gainean korrika bizian ikusi eta fenomeno bitxi horren arrazoiak argitzen ari dira Harvard-eko ikertzaileak. Sistema arrunt sinplea eta eraginkorra erabiltzen du gure laguntxoak, irudian ageri den bezalaxe, uraren gaineko joan-etorriak ziztu bizian egiteko.

## Dantzari trebea

**G**oiko irudiko dantzari arina ez da Nureiev ezta Antonio ere, jakina. Eta noski, ez da *Zisneen Lakua* dantzatzen ari. Basilisko deritzo musker itxurako animaliatxoari (*Basiliscus basiliscus* da bere izendapen zientifiko zehatza) eta zientzilariak ur gainean korrika nola ibil daitekeen aztertzen ari dira. Costa Ricara joan behar izan du horretarako Harvard Unibertsitateko ikertzaile-talde batek, bertakoa baita gure laguntxoak. Itxuraz, aire-labaingailuen antzeko efektua erabiliz lortzen du ez hondoratzea dantzari eta korrikalari bikain honen. Hankak oso azkar beheratzen ditu eta oinaren eta ur-gainazalaren artean aire-kuxin

bat sortzen da. Ur-gainazalaren eta airearen arteko presio-diferentziak basiliskoa ez hondoratzea ahalbidetzen du. Ondorio horretara iritsi dira ikerlariak basiliskoaren joan-etorriak irudi-sekuentzian deskonposatuz eta ondoren berreginez. Ikerlan horren hurrengo urratsa irakurle, gizakiak antzeko fenomenorik egin dezakeen edo ez aztertzea da. Izan ere, basiliskoak erabiltzen duen sistema berean oinarrituz, lortuko al du gizakiak bere kasa uraren gainean korrika egitea? Baietz diote ikertzaileek, baina horretarako 80 kg-ko korrikalariak 30 metro segundoko abiaduraz ibili beharko luke. Eta bitartean, kalkulu horrietaz batere arduratu gabe, hortxe dabil basilisko dantzari trebea, gure ezintasunak agerian utziz.



### Siberiako tigrea

**B**ere itxura benetan beldurgarria da, baina etorkizunaren aurrean erabat izututa agertzen dena berau da, Siberiako tigrea. Izan ere, hainbat talde ekologistetako ardura-dunek bereak egin duela diote, baina ez dute amore eman nahi Sibe-



ez ziren ikustatu Siberia osoan. Horra hor beraz, desagertzeko zorian da goen beste animalia eder bat. Ez al zaizue zerrenda luzeegia iruditzen? Siberiako tigrearen iraupena arriskuan jarri duten faktoreak asko eta era askotakoak dira. Batetik, tigre-populazioa industrializazioak sortutako lurralde-banaketa berrira ez dela behar bezala egokitu onartzen dute ekologistek. Hori xe litzateke bada, arrazoietako bat. Hori baino garrantzitsuagoa da aldiz, giza presioak eragindako egoera. Siberiako tigrearen larruz egindako produktuak luxuzko dandatan saltzen dira Errusian eta Txinako merkatuan ere sarbide erraza omen dute. Joera horren ondorioz beraz, legez kanpoko ehiztariak uholdeka iristen ari dira Siberiara.

Baliko tigrea izan zen lehenik eta ondoren, Javakoaren txanda heldu zen. Leku horietan guztietan ia desagertutzat jo daiteke tigrea. Indiako egoera ez da gozoagoa eta orain, Siberiako tigreari egokitu zaio txanda. Zein izango da hurrengoa?

Bere itxura benetan ikaragarria bada ere, animalia eder honek ez du etorkizunaren aurrean bere burua defendatzeko aukerarik. Legez kanpoko ehiztariengandik ihesi, 80 ale baino ez ziren ikustatu Siberia osoan.

riako agintarien aurrean presioa egin gabe. Egoeraren adierazgarri gisa, bertako tigre-populazioa azken urteotan izan duen beherakadari buruzko datuak eman dituzte; garai batean inguru osoko erregea zena, gaur egun erabat marjiniturik bizi da bertan. laz 80 ale inguru baino

### Lehorrean sortua

**B**ai irakurle, horrelaxe da: Mediterranioko poluzioa lehorrean sortua da eta itsasertzetik isuritzen dira poluitzaileen % 80-90. Datu horiek

eman ditu argitara Mediterraneo itsasoa ba besteko eratu den nazioarteko batzordeak. Bertan ordezkaturik daude inguruko herrialde gehienak, hau da, poluzioarekin zerikusi zuzena duten ia eragile guztiak. Batzordeak plazaratu duen txostenaren arabera, isuritako poluitzaile gehienak identifika daitezke; farmakoak, papera eta ongarriak ekoizten dituzten industriak dira isuritako poluitzaileen erdia baino gehiagoren erantzule zuzenak. Gainerakoak hiri-hondakintzat har daitezkeela uste dute batzordeko adituek eta txostenak jaso duenez, bereziki kezkarria, uda partean isuritzen den poluitzaile-kopurua da. Jakina, turismoak zerikusi zuzena du Mediterranioko poluzioarekin.

### Unitate ibiltaria

**B**ritainia Handitik Errusiarako bidean, zortzi aste inguru ematen omen dituzte beltzargek. Denbora horretan nondik-nora doazen eta une oro non dauden jakin ahal izateko, 90 gramoko irrati-transmisorea jarri diote taldearen buruan doan arrari. Zergatik arrari? Biologoek iritiz, emeari jarriko baliote, bere sexu-harremanak normaltasunez burutze-rik ez luke izango eta horrek talde osoaren iraupena jarriko luke kolokan. Irrati txiki horrek Bristolgo Unibertsitatera igorriko ditu bere seinaleak eta bertatik jarraitu ahal izango dute animalia eder hauen ibilbidea.



Beltzargak atzean daramana irrati-transmisore txiki bat da. Bristolgo Unibertsitatean beren ibilbidearen nondik-norakoak zuzenean ezagutu nahi omen dituzte eta horretarako jarri diote aipatu aparatua. Britainia Handitik Errusiarako joateko, zortzi aste inguru beharko ditu beltzarga-taldeak. Horri buruzko informazioa bada, zuzenean jasoko dute aurten.

